

U R I B E

Argazki-gida



*Uríbe kamera baten ikuspegitik
aurkitzeko ezinbesteko tresna*

Aurkibidea

	3		6
Sarrera		Kostako paisaia	
	4		8
Gida hau nola erabili		Barrualdeko paisaia	
Gomendatutako materialak		Historia luzeko paisaia	10
Argazkiak noiz egin		Paisaia aktiboa	12
Sopela	14	Derio	45
Gorliz	18	Larrabetzu	46
Barrika	22	Lemoiz	48
Fruiz	26	Sondika	50
Urduliz	28	Zamudio	51
Meñaka	30	Mungia	52
Maruri-Jatabe	32	Laukiz	54
Gatika	34	Arrieta	55
Bakio	36	Loiu	56
Erandio	38	Berango	57
Plentzia	40	Gamiz-Fika	58
Lezama	44		



Sarrera

Uribe eskualdea Bizkaia Lurralde Historikoaren ipar-ekialdean dago, pribilegiozko lekuan; bai itsasotik oso gertu dagoelako bai inguruko udalerririk garrantzitsuenekin –hiriburua, Bilbo, barne– oso ondo komunikatuta dagoelako.

Jata mendia dugu epizentroa, eta 598 metroko garaierarekin, bertatik, inguruko paisaia-dibertsitatea ikus dezakegu. Ahozabal utziko gaituzten itsas labarrak Kantauri itsasoaren suhertasunaren lekuko dira, baina itsaso berberak sortu ditu kala eta hondartza idilikoak ere, aparteko fauna eta landaredia dutenak, eta horren guztiaren inguruan, ospe handiko marinel-herri bukoliko eta udalerriturstikoak.

Kostaldetik apur bat urrunduta, landa-eremuko Bizkaia ere eskainiko digu Uribek: hainbat eta hainbat baserri, ermita, eliza eta dorretxe, euskal kutsu sakoneko artearen, folklorearen eta historiaren bidez gidatuko gaituztenak.

Abratik hasi eta Ibaizabal ibaian gora, iragan eta orainaldi industrial aurkituko dugu, eskualdearen modernitatearen bultzatzaile.

Gida hau Uribe alderdi eta xehetasun guztiekin ezagutzeko tresna da; kamera baten ikuspegitik, paisaia, gastronomia, kultura eta historiaz gozatzeko tresna. Kamera, agian, aitzakia hutsa izango da, baina Euskadiko lurralde askotariko, eder eta bizienetako batera behin eta berriz itzularaziko gaituen aitzakia sendoa.

Bete bateriak, heldu kamerari eta gozatu.

Argazki-bidaia zoriontsua izan dezazula!



Gida hau nola erabili

Uribeko argazki-gida edozein mailatako argazki-zaleentzat pentsatua dago. Ez da aditua izan behar, eta ez da argazki-ekipamendu garestirik eduki behar gida honetan barrena kamera batekin ibiltzeko.

Argazki-kokapenak eskualdeko hainbat udalerrri eta paisaiatan barrena egindako ibilbidean antolatu dira, eta deskribapenekin batera, lekurik iradokitzaile eta fotogenikoenen irudiak atxiki dira.

Irudi nagusi bakoitzarekin batera, haren lokalizazioaren GPS eta GD kokapenak atxiki dira; bisitariak, horrela, leku bakoitza errazago identifikatzetik izan dezan. Hala ere, azalpenak erabatekotzat ez hartzea gomendatzen dugu; bai, ordea, lekua arakatzen hasi eta ingurua zeinek bere ikuspegitik aztertzeko abiapuntu gisa. Argazkilaritza sormenezko jarduera subjektiboa da, paisaia oso modu desberdinean islatzeko aukera dauka pertsona bakoitzak.

Irudiekin batera hainbat azalpen ere eman ditugu tokiei argazkiak egiten laguntzeko; hala nola, urteko sasoi eta urtarorik egokiena, argi-baldintzak edo gomendatutako argazki-osagarriak. Zorrotzenentzat, irudiarekin batera deskribapen tekniko labur bat ere jaso dugu: gida honetako argazkiak nola eta zer objektibo edo osagarrirekin egin diren, alegia.



Iradokizun teknikoak



Azalpen geografikoak

Argazki-gida honetako ibilbide ia osoa GR 280 URIBE Ibilbide Luzeko bidean barrena egin da. Sakatu ikonoaren estekan ibilbide horretako mapak eta hari buruzko iradokizunak ikusteko



GR-280 URIBE

Gomendatutako materialak

Gaur egun, argazkigintzan aplikaturiko teknologiaren aurrerapenari esker, ia edozein gailutatik egin ditzakegu argazkiak, eta hori pentsaezina zen duela hamar edo hamabost urte.

Bereizmen nahikoko kameradun sakelako telefono batetik hasi eta kamera tinko txiki edo reflex kamera digital aurreratu batera arte, horietako edozein tresna nahikoa izango da gure argazki-ibilaldietan gozatzeko.

Gure ekipamenduari osagarriak txertatzea hainbat faktoreren arabera izango da: eguneko zer ordu den, zenbat argi dagoen eta zeri egin nahi diogun argazkia. Edozein kasutan, gutxieneko osagarri batzuk edukitzea gomendatzen dugu: argi gutxi dagoenerako tripode bat –gaur egun edonork eduki dezakeena– eta gure ekipamendua klimaren gorabeheretatik babestuko duen poltsa edo estalki on bat, esaterako.

Gure kamerak horretarako aukera ematen badu, polarizazio-iragazki batek paisaiaren bolumena eta kolorea nabarmenduko ditu, eta distira desatseginak desagerraraziko ditu.

Argazkiak noiz egin

Oro har, Uribe gisako paisaietan argazkiak egiteko unerik egokienak eguneko lehen eta azken orduak dira; batez ere, egunsenti eta ilunabar ikusgarriak eskaintzen dituen leku batean eta itsasertzean: Urrezko Ordua, alegia.

Eguzkia irten aurretik edo hura ezkutatu ondoren, zeruak urdin kolore bizia hartzen du eta horri Ordu Urdina deitzen zaio; une horretan, eta tripode baten laguntzarekin, edertasun handiko argazkiak egin ditzakegu.

Eguraldi euritsu edo ekaiztsuetan, egunaren erdialdeko orduak dramatismo handiko irudiak eskaintzen dizkigute, hodei-formazio handi eta argi-kontrako epikoekin.

Gomendio ona da leku berberak urte sasoi ezberdinetan eta eguneko ordu ezberdinetan bisitatzea. Oso ustekabe atsegina hartuko dugu.



Gorlizko labarrak
f 5.6 1400 s. ISO 200
Objektiboa 14-54:14mm-ra
Uda.

Kostako paisaia

Uribeko kostako paisaiak eskualdearen alde handi bat hartzen du; Erandiotik Bakiora, tartean Sopela, Barrika, Plentzia, Gorliz eta Lemoiz hartuta. Itsas aldea oso aldakorra da: labar malkartsuak, kala idilikoak zein hondartza dotoreak. Paisaiak hainbat eta hainbat aukera eskaintzen dizkigu argazkiak egiteko. Urtaroen arabera, klima baldintzak

ere modu ikusgarrian aldatzen dira. Leku berbera ilunabar zoragarri baten erdian ikus dezakegu, edo olatuak labarren kontra talkarazteraino altxatzen dituen itsas ekaitza baten erdian. Itsasoaren kolorea ere oso aldakorra da: ekaitz egunetako berun-grisetik, eguzki egunetako urdin turkesa edo berde esmeraldaraino.

Uribeko kostako argazkilariarentzat beste pizgarri bat da lekuri malkartsuenak kolonizatzen dituen flora aniztasuna. Udaberrian eta udan, txilarra loratzen denean, labarretatik paseo bat egitea kolore-ikuskizun paregabea da, eta edertasun handiko konposizioak egiteko aukera eskaintzen digu.

Barne paisaia

Uribeko barne paisaia landa-eremukoa da funtsean, mendi eta baso mardulez inguratua. Paisaia nahaspilatsua da, ehunka bidetan barrena, ehun urteko baserri eta dorretxetatik igaroarazi eta Bizkaiko Erdi Aro gatazkatsua gogoraraziko diguna.

Hiriguneetatik apur bat urrunduaz batera, denboraz kanpoko paisaien

magian murgilduta egongo gara. Labore-lurren artean sakabanatuta dauden baso ugariak enkoadraketa eta argijolas interesgarriekin harrituko gaituzte, batez ere goizeko eta arratsaldeko lehenengo argien berotasunean. Itsasotik gertu egoteak eta landaredia oparoak behe-lainoa eragiten dute, eta inguruko argi beroarekin batera, ametsetako dekoratuak.

Uribe barnealdearen beste ezaugarri bat basoko pistetatik edo GR bideetatik erraz ibiltzeko moduko mendi leunak dira, eta bertara iritsita, paisaiaren argazki panoramikoak egin ahal izango ditugu. Sollube eta Jata mendiek Uriberen ikuspegi oso eta orokorra eskaintzen dute.



Meñakako baserriak
f 4 1/60 s. ISO 200
Objektiboa 50-200:108 mm-ra
Udaberria.



Fruizko eliza
f 5.6 1/2 s. ISO 200 Tripodea
Objektiboa 14-54:14mm-ra
Udaberria. Urrezko ordua.

Kostaldean nahiz barrualdean, Uribe osatzen duten herriek iragan historiko oparoa gordetzen dute. Mendietako basoetan galdurik dauden baseliza erromanikoetan zein udalerrietako herriguneetan. Eskualde baten historia argazki-kamera baten objektiboaren bidez ikusteak denboran atzera egin eta, askotan, ustekabean joango zitzaizkigun xehetasunei erreparatzea ahalbidetzen digu. Argazki-kamerak arretaz begiratzera behartzen gaitu; leku baten berezitasun sarritan hautemangaitzak bilatzera. Kostaldeko herrietako kale gurutzakor eta aldapatsuen ildoek, Kantauri itsasoa atzean dutela; ehunka urteko

baserrien koloreek eta berotasunak, edo eskualdeko elizetako kapitel eta ateburuetako erliebe zoragarriak beteko dituzte gure argazki-txartelak.

Lurralde hau, gainera, erromesen eta bidaiarien igarobidea izan da mendeetan. Kostaldeko Donejakue bideak eskualde hau zeharkatzen du zati batean.

Uribeko paisaia historikoa bidelagun aparta da, eta lurralde horretako kulturaren eta sustraien bidez gidatuko gaitu bertako ondare arkitektoniko zoragarriaren argazkiak egiten ditugun bitartean.

Historia luzeko paisaia

Halako barietatea duen paisaia natural bat aisialdiko jarduera ugari egiteko aparteko lekua da, eta horiek argazkilaritzarekin batera daitezke. Erraza da zenbait jarduera antolatzea: argazkiak egiteko mendi-ibilbideak, mendiko argazkilaritza, uretako jarduerak –surfa, bela edo kayak–, bai eta parapentean hegan egitea

ere. Bideen ugaritasunari eta Uribeko komunikazio egokiei esker, bizikleta soil batekin eta kamera tinko edo ekintzako kamera batekin bi zaletasunak bateratu ahal izango ditugu. Ikusle huts bagara, edozein txokotan aurkituko dugu argazkia egiteko arrazoi bat paisaia zoragarria eta abentura-kirolen batean diharduen norbait hartuko dituen.

Paisaia aktiboa



GR 280 Urizarren (Lemoiz)
f 5.6 1/125 s. ISO 200
Objektiboa 14-54:14mm-ra
Udazkena euriñan-





Sopelako hondartzak
f 10 15 s. ISO 200 Tripodea
Objektiboa 14-54:16 mm-ra
Udaberria. Ilunabarra. Urrezko ordua.

SOPELA

Arriatera eta Atxabiribil

Arriatera eta Atxabiribil hondartzen artean harkaitz-muino bat besterik ez dago. Labarretatik agertzen diren ikuspegi panoramikoekin, Sopelako lekurik ezagunenetakoa da argazkilarien artean. Argazkiak ilunabarrean edo egunsentian egin nahi baditugu, edo gure xedea parapenteen hegaldiari edo surflarien bilakaera bizkorrei argazkia egitea bada ere, leku aiproposean gaude.

Horrez gain, Bilboko Abra eta merkataritzako portua hurbil daudenez, merkataritza eta arrantza ontzien trafiko bizia sortzen da, eta gure irudietako nahigabeko protagonista bihur daitezke.

Arreta handiarekin eta mareen zikloak eta itsasoaren egoera kontuan hartuta, oso argi-baldintza aldakorreko argazki desberdinak egin ditzakegu egun berean, urre koloreko hareazko hondartza batean egun zoragarria gozatzen dugun bitartean.



Sopelako kosta
f 3.5 1750 s. ISO 200. Tripodea.
Objektiboa 50-200: 200mm-ra. Uda.



HELBURUA
Kostako argazkia

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa / Bizkaibus
/Metroa

GPS KOORDENATUAK
43°23'24" N
2°59'30" W

GD
43.3902055
-2.9918803





HELBURUA
Kostako argazkia

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa / Bizkaibus
/Metroa

**GPS
KOORDENATUAK**
43°23'24" N
2°56'30" W

GD
43.3902055
-2.9918803



Ordu Urdinak argi-doikuntza zehatza behar du. Gure fotometroak nola funtzionatzen duen ulertzea eta esposizioaren konpentsazioa [-/+]
ulertzea funtsezkoa da emaitza bikainak lortzeko.



f 9.0 3/2 s. ISO 200 Tripodea
Objektiboa 12 mm
Udaberria. Ordu Urdina.

SOPELA

Arriatera eta Atxabiribil

Arriatera eta Atxabiribil aparteko lekuak dira marearteko paisaiaren argazkiak egiten jarduteko. Tripode batekin eta mareak ondo kalkulatu, irudi magikoak lor ditzakegu. Aldapa txikiko hareatza handiak direnez, orduak joan ahala itsasoak sortzen dituen putzuei argazkiak egiteko aukera izango dugu. Hondar hezetan sortzen diren islen, urre eta zilar ukituen ikuskizunak plastikotasun handiko irudiak izango ditugula bermatzen du.



GORLIZ

Hondartzako pinudiak

Sarritan, hurbil daukagun itsasoak gehiegi tentatzen gaitu eta ez gara jabetzen gure atzean eskaintzen digun ikuskizun naturalaz.

Irudirik ez baztertzea komeni da, eta inguruak eskaintzen dizkigun argazki-aukera guztiak kontuan hartzea.

Gorlizeko itsasertzeko pasealekuan landaredia oparoa da; batez ere inguruetakoko ekosistemak –kostako pinudiak– eta antzinako duna-sistemetakoko landaredia berreskuratu direnetik. Merezi du enkoadraketa desberdinak bilatzea, batzuetan konposizio arriskatuak eginez edo argi-baldintza aldakorrekin jokatzuz, irudi ikaragarriak izango ditugu eta.

Ezinbestekoa izango dugu tripode on baten laguntza, dirdirarik gabeko irudiak lortu nahi baditugu.



HELBURUA
Kostako argazkia

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa/Bizkaibus
/Metroa

GPS
KOORDENATUAK
43°24'59" N
2°56'39" W


GD
43.4165901
-2.9441953



Hondartza marea behearekin.
f 3.5 1/200 s. ISO 200
Objektiboa 14-54 :21 mm-ra
Uda. Ilunabarra. Urrezko ordua.



f 20 1/25 s. ISO 100
Objektiboa 14-54 :21 mm-ra
Uda. Ilunabarra. Urrezko ordua.



GORLIZ

Kosta malkartsua

Gorlizeko itsasargirako bidean, Billano edo Legorri lurmuturrean, zorrotz itsasoratzen diren labar malkartsuak zeharkatuko ditugu; labarrok lehorretik irispiderik ez duten kalak sortzen dituzte, baina gure kamerak harrapatuko ditu, baldin eta teleobjektibo on bat badugu. Bideak kostarekiko paraleloan doaz kostako landare eta lore artean, udaberri eta udan, batik bat.

Ontzirik izanez gero, paisaia-aukera amaigabea izango dugu eskura, itsasargiaren oinean, Billanoko labarrek eta paraje horien bakardadean lagun duen Billano irla malkartsuak jatorrizko izaera ematen diote paisaiari.



Gorlizko itsasargia
f 8 1/250 s. ISO 100
Objektiboa 35 mm
Urte osoan.



Eguzkia gure enkoadraketan dugula, ikuspegi baxuak eta diafragma itxiak plastikotasun handiko irudiak sortzen dituzte



Labarretako flora
f 20 1/25 s. ISO 100
Objektiboa 12 mm
Udaberria.





HELBURUA
Kostako argazkia

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa/Bizkaibus

GPS KOORDENATUAK
43°24'18" N
2°58'14" W

UTM
43.405220
-2.970688

BARRIKA

Marearteko flyscha

Irudi gutxi izango dira Barrikako hondartzako marearteko zabalaldi zoragarria bezain ikonikoak. Herensuge itxura duten arroketan jolasten aritzea marearen argi eta intentsitate desberdinekin irudiak jasotzen ditugun bitartean Uribe kostaldean soilik goza daitekeen luxua da.

Uda osoan zehar eguzkia itsasoko hodeiartean ezkutatzen da, hondartza lerroarekiko perpendikularrean, eta abiadurarekin eta n°f-rekin esperimentatzeko kolore-aukera aparta izango dugula bermatzen digu. Hondartza hego-mendebaldetik ipar-ekialdera orientaturik dago, eta horrek bermatu egiten digu

hodeiak gure kameraren objektiboaren aurretik igarotzen ikusiko ditugula ia inguruabar guztietan.

Hondartza eder hau urte sasoi guztietan landu dezakegu, eta sasoi bakoitzean emaitza desberdina izango dugu. Baina udaberri eta udazkeneko marea bizi eta hilekin bat badator, ikuskizun zirraragarria izango dugu, zalantzarik gabe. Garatzen diren hodeien trenak, ondo definitu eta osaturiko kumuluninboekin, flyscheko arroken gainetik igaroko dira, itsasoko olatuek inguruko uharrietan indarrez talka egiten duten bitartean.

Gure atzean, labarrek osatzen duten flysch lerroek tuparri eta hareharrien ikuskizuna sortzen dute itsasoko ilunabarraren argi beroaren argitan.



Ez ahaztu zure motxilan iragazki pila sartzea; batez ere dentsitate neutrokoak (ND) eta hainbat urratsetako degradatu neutrokoak, eta kable bidezko kliskagailu on bat.



Barrikako hondartza
f 22 0,5 s. ISO 200
Objektiboa 14-54:17mm-ra
Uda.





f 5.6 1/5 s. ISO 400
Objektiboa 14-54:14mm-ra
Urte osoan.

BARRIKA *Zeruaren eta itsasoaren artean*

Labarren gainetik nahiz itsas bazterretik bertatik, Barrika ikuskizun natural ahaztezina da. Itsasorantz zabalik egotean urte osoan ikus daitezke ilunabarrak. Eta argazki ia onirikoak egiteko orografia eskaintzen digu.



Kostaldean erabili beti tripodea.
Konposizioak orekatzen lagunduko
dizu, eta obturazio-abiadura mantoak
ahalbidetuko dizkizu.




f 22 2,0 s. ISO 200
Objektiboa 200 mm Tripodea
Urte osoan.

FRUIZ

Naturaren eta gizakion historia

Fruizeko elizate txikiak hainbat izaeratako altxor historikoak biltzen ditu. Alde batetik, udalerriaren kanpo aldean jada erabiltzen ez den harrobi basaltikoan, Lurreko beste leku batzuetan –Islandian edo Irlandako Erraldoien Galtzadan– ageri direnen antzeko forma hexagonaleko arroka bolkanikozko zutabeak ikus ditzakegu, eta argazkiak egin. Goi Kretazikoan sortu ziren itsas hondoko laba-koladen hoztearen ondorioz. Beste alde batetik,

Salbatore elizak, XVI. mendekoak, atari erromanikoa dauka, 1200. urtean koka daitekeena eta ezin hobeto kontserbatu dena. Bertako kapiteletan Jainkoaren Bakea eta Jaunaren Tregoa daude irudikaturik, eta Erdi Aroko zaldunen irudikapen biziak ere badaude. Tripode bat eta tenporizadore edo kableko kliskagailu batekin ikonografia oparo eta bakar honen zortzi mendetako historia jaso ahal izango dugu iruditan.



HELBURUA
Ondarearen argazkiak

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa/Bizkaibus

**GPS
KOORDENATUAK**
43°19'40N 2°47'02"W

GD
43.3279087
-2.7840861



HELBURUA
Outdoor argazkiak

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa / Bizkaibus
/Metroa

GPS
KOORDENATUAK
43°22'17" N
2°57'32" W

GD
43.3715758
-2.9591548



Eskalatzaileak Santa Marinaran
f 5.0 1/322 s. ISO 200
Objektiboa 14-54: 60 mm-ra
Udazkena lainopear-

URDULIZ mendí-eskola

Uriben, kirol-jardueren argazkiak egiteko dauden hainbat eta hainbat tokitatik, nabarmentzekoak dira Santa Marinarako haitzak. Inguru hori aspalditik erabiltzen da eskalada-eskola gisa. Haitz horietako malkarretan, hainbat eta hainbat euskal alpinista eta mendizalek ikasi dute eskalatzen eta eman dituzte lehen urratsak.

Eguraldia lagun izanez gero, edozein urte sasoitan lortuko dugu kirolari horien bilakaeraren eta ahaleginaren argazkiak egitea, hurbiletik edozein kamerarekin.

Inguru hori bereziki ederra da udazkenean, gure argazkiei kolore ukitua ematen dion baso eder batez inguratuta baitago.

Santa Marina baselizarako bisita egiten badugu, udalerraren panoramika ederraz gozatuko dugu, txori-begizko ikuspegitik.



Kirol-argazkilaritzan ia ezinbestekoa da zoom on bat edo teleobjektibo bat erabiltzea. Horren potentziari esker, konposizio-aukera mugagabeak izango ditugu.



MEÑAKA

Paisaiaren magia



Meñakako paisaia ilunabarrean
f 2.8 1/200 s. ISO 200 Tripodea
Objektiboa 14-54: 40 mm-ra
Udazkena.



Paisaia-argazkilaritzan gehien bilatzen den efektuetako bat, seguru aski, irudiaren atmosferaren bidez lorturiko eremu-sakonera izango da. Ordu egokia aukeratzea berebizikoa da emaitza ezin hobeak lortzeko.

Meñaka Sollube mendiaren babespean dago, gailurrerako bidean, hain zuzen. Solluberen magaletatik Uribe osoaren ikuspegi ederra gozatzeko aukera izango dugu, ekialdean itsasotik hasi eta mendebaldean dagoen eremuraino. Pribilegiozko lekua da paisaia-argazkilaritzarako, eremu-sakonera oso handia du, eta haren hondoan, lurraldeko gailur sakabanatuak eta etereoak ageriko zaizkigu.



HELBURUA
Paisaia-argazkiak

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa/Bizkaibus

GD
43.3614243
-2.7986106

GPS KOORDENATUAK
43° 21'41" N
2°47'55" W

MARURI-JATABE

Altxor bat laino artean



Lainoa egunsentian
f 5.6 1/13 s. ISO 200
Objektiboa 14-54:15mm-ra
Udaberria/Uda.



Paisaiari lainoetan argazkiak egiteko
pazientzia handia behar da. Minutuak
joan ahala, paisaia etengabe aldatzen da.
Ez ezazu argazki bakarra atera.



HELBURUA
Paisaia-argazkiak

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa/Bizkaibus

GPS KOORDENATUAK
43°24',26 N
2°52'19" W

GD
43.4020223
-2.8721651

Maruri-Jatabe haran zabal batean gailentzen da, baserri eta baso txikiz zipriztinduta. Baina, agian, argazkilariarentzako ezaugarriarik interesgarriena izango da egun bero baten ondoko goiz hotzetan paisaia osoa hartzen duen lainoa. Egunsentian, tenperaturaren jaitsierak eragiten du gertaera hori, eguraldi onarekin, urteko edozein egunetan ikus daitekeena. Paisaian ageri diren laino izpi beste aukera dago argazkigintzarako.



HELBURUA
Arkitektura eta paisaia

NOLA IRITSI
Autoa/Bizkaibus

GD
43.370088
-2.911422

GARAIA
Urte osoan

GPS KOORDENATUAK
43°22'12" N
2°54'41" W

Bizkaiko gazteluei buruz ari garenean, Butroeko gazteluaz ari gara batik bat. Haren arkitektura bikaina gailendu egiten da kilometrotako itzulinguruan. Jatorrian, Butroetarren leinuko dorretxea zen. XIX. mendean, Cubasko markesak birmoldatu egin zuen eta gaur egun duen itxura neoklasikoa eman zion, Europa erdialdeko gaztelu handien antzekoa. Ezaugarriak nabarmengarriena, agian, omenaldiaren dorrea izenekoa izango da.

Gazteluak eskaintzen dituen argazki-aukerak amaigabeak dira, bai ingurua mihise gisa erabili eta gure irudiak konposatzea erabakitzen badugu bai gazteluko dorre, almena eta matakanen

xehetasunei erreparatu nahi badiegu.

Gazteluaren perimetroa inguratuz, baso tinkoa dago, bostehun zuhatzetik gorakoa, eta bertan espezie exotiko eta palmerak ikusiko ditugu, bai eta zedro japoniar bat ere. Handik gertu dagoen aparkalekutik sar gaitezke basoan, erraz ibiltzeko hainbat bidexkatatik.

Landaredia tinkoak osatzen dituen argi eta ilunak bereziki erakargarriak dira udazkenean eta eguneko lehenengo edo azkeneko argiekin, Erdi Aroko ipuin batekoa dirudien ingurua sortuz.

*Polarizazio-iragazkia erabiltzeak
landarediaren distirak kentzen eta
irudiei kontraste eta sakonera handiagoa
ematen lagunduko digu.*



GATIKA

Gazteluaren gerizpean



f 5.6 1/320 s. ISO 200
Objektiboa 14-54: 40 mm-ra
Udaberria. Urrezko ordua.

BAKIO

Lurra eta itsasoa



HELBURUA
Landa-eremuko eta
kostako paisaia

NOLA IRITSI
Autoa/Bizkaibus

GD
43.4306325
-2.8112027

GARAIA
Urte osoan

GPS KOORDENATUAK
43°25'50"N 2°48'40"W

Bakio kostako herriak bi ezaugarri berezi ditu. Alde batetik oso kosta malkartsuan kokatuta dagoen hondartza, zeinaren ekialdeko ertzean Gaztelugatxe Doniene ermitaren harkaitz-muinoa gailentzen den. Ospea ematen dion bigarren ezaugarria bertako txakolina da, Euskadiko ardo adierazgarriena eta nazioartean gehien ezagutzen dena.

Bakion argazkiak egiteko komeni da hondartzako itsasertzeko pasealekua hartzea abiapuntu. Ia urte osoan zehar, batez ere sagailoa denean, surflarien argazkiak egin daitezke, olatuetan barrena bilakatzen direnean.

Edertasun handiko kostako ibilbideak lotzen ditu Bakio eta Gaztelugatxe Doniene-Aketxe, eta San Pelaio ermita erromanikoan bisita egiteko aukera eskaintzen du.

Bakio osoa inguratuz eta mendietako magal leunetan tinko, txakolinaren mahastiak daude, hondoan Kantauri itsasoarekin ezin hobeto bateratzen den landa-eremuko paisaia bukolikoa.



f 5.6 1/160 s. ISO 200
Objektiboa 50 mm
Udazkena.



f 3.5 1/320 s. ISO 400
Objektiboa 200 mm
Udazkena.

ERANDIO

Itsasadarraren argia

Erandio Nerbioi itsasadarraren muinean dago, eta ontziolaz eta industria-konplexuz inguratuta dago. Ibaiaren bi ertzak Bizkaiko eragile ekonomikoak izan dira mende askoan. Erandiok badu oraindik industria-eremuak eta portu-instalazioak argazkigintzarako gai kuttun bihurtzen dituen xarma berezi hori.

Ontziolak—oraindik aktiboan daudenak—eta itsasadarra zeharkatzen duten ontzien ontziralekuak abiapuntu hartuta,

oso argazki onak egin ditzakegu itsasoko elementuak protagonista hartuta.

Eguneko ordu bakoitzak, mareen gorabehera bakoitzak eta urtaro bakoitzak kolore-paleta desberdina eskainiko digu.

Islak, simetriak, testurak... portuko garabi handien hondoarekin.

Ibaiko urak berreskuratu izanari esker, orain hainbat espezie ere ikus daitezke inguruan: kaioak, ubarroiak eta hegazti migratzaileak.




f 14 1/25 s. ISO 200
Objektiboa 14-54:14 mm-ra
Udaberria. Urrezko ordua.

Ontzien eta ontziolen islak eta portuko instalazioen testuak nabarmendu egingo dira argazkiak eguneko lehenengo edo azkeneko orduetan egiten baditugu.



f 5.6 1/400 s. ISO 200
Objektiboa 14-54:16 mm-ra
Negua



HELBURUA
Ibaiko argazkiak

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa / Bizkaibus /
Metroa

GPS KOORDENATUAK
43°18'16"N 2°58'39"W

GD
43.3044204
-2.977413

PLENTZIA

Marinelen herria



HELBURUA
Kostako argazkia

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa / Bizkaibus
/Metroa

GPS
KOORDENATUAK
43°24'08" N
2°56'37" W

GD
43.4022775
-2.9437187



f 3.5 8/8 s. ISO 200 Tripodea
Objektiboa 14-54 :20 mm-ra
Negua.

Plentzia Hiribildua Uribeko marinel-tradiziorik handieneko lekuetako bat da. Gorlizekin partekatzen duen maskor itxurako hareatza izugarri horren oinean, mendeetan zehar izan da marinelen eta nabigatzaileen sorterria. Galeoi, ekaitz eta ametsez beteriko iragan hura hauteman daiteke oraindik marinel-etxe, dorre, jauregi eta “indianoen” egoitzaz beterik dauden herrigune historikoko kalezulo nahaspilatuetan. Herrigune historikoan ilunabarrean edo egunsentian argazkiak egitean antzinako harrien testurak eta kolorea nabarmenduko dira. Kaleetan barrena itsasoko

pasealekuraino jaisten garen heinean Ordu Urdina aprobetxa dezakegu ainguratuta dauden ontzien irudi ederrak hartzeko, ertzak inguratzen dituzten argi beroez inguratuta eta Metroko instalazioak eta ibaiaren bi ertzak lotzen dituen pasabidea atzean izanik.




*Ordu Urdinean edozein paisaiak
har ditzake ukitu ia piktorikoak.
Tripodea edo kableko edo
urruneko kliskagailua erabiltzea
ezinbestekoa da esposizio luzeari
eusteko.*



f 14 1/60 s. ISO 200
Objektiboa 14-54: 40 mm-ra
Uda.



*Itsasontziaren argazkiak egiteko komeni
da haizerik ez ibiltzea, uretan isla
ederrak lortzeko.*



f 8 1/4 s. ISO 200
Objektiboa 14-54: 14mm-ra
Udaberria.



HELBURUA
Ibaiko argazkiak

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa / Bizkaibus /
Metroa

GD
43.4035323
-2.947967

GPS KOORDENATUAK
43°24'12"N
2°56'52"W

PLENTZIA

Itsasadarraren erriberak

Plentziako itsasadarrak itsasoa eta Butroeko gaztelua lotzen ditu. Bertako erriberetatik edo GR 280 ibilbidean bagabiltza, edertasun handiko paisaiak ikusiko ditugu. Ainguratuta dauden ontzi ugariak protagonista hartuta egin daitezkeen konposizioetatik meandroetara –Isuskitza auzokoa, esaterako–, non ibaiak kiribil apatatsuak sortzen dituen eta goizaldeko lainoek itxura etereo hartzen duten. Hegazti migrariak ikustea –koartzatxoak, koartzak edo ahate saldoak– oso ohikoa da, eta gure argazkietako ustekabeko aktore bihurtzen dira.

LEZAMA

Athletic taldearen ondarea

Lezamak bateratu egiten ditu Asua bailararen bihotzean dagoen elizate baten landa-eremuko izaera eta kokapen pribilegiatua, Bilbotik oso gertu. Udalerrri horretan daude Athletic Club-en instalazioak, eta bertan, zaleek euren idoloen eta Athletic Club de Bilbaoren promesa gazteen argazkiak egin ditzakete entrenatzen ari diren bitartean.

2013an, San Mames estadio zaharreko arku historikoa eraman zuten Lezamara, eta orduz geroztik, Lezamako paisaia definitzen eta menderatzen du.



HELBURUA

Landa-eremuko paisaia
eta kirol paisaia

NOLA IRITSI

Autoa /Euskotren /
Bizkaibus

GD

43.274722
-2.833333

GARAIA

Urte osoan

GPS KOORDENATUAK

43° 16' 29" N 2° 50' 0" W



*Kirol alorreko argazkilaritzan, teleobjektibo on bat eta
obturadore-abiadura handiak izango dira gure aliatu onenak.*



HELBURUA

Landa-eremuko paisaia

NOLA IRITSI

Autoa /Euskotren /
Bizkaibus

GD

43.2991901
-2.9820101

GARAIA

Urte osoan

GPS KOORDENATUAK

43°17'57"N 2° 53'31"W

DERIO

Baserrien artean



f 5.6 1/200 s. ISO 200
Objektiboa 14-54: 38 mm-ra
Udazkena.

Derio inguruek gizakion nekazaritza-jarduerekin elkarbizitzan dagoen espazio natural zaindua osatzen dute. Fruta-arbolez eta baserriz zipriztinduriko larre berdeetan barrena ibiltzea gozamina da eta konposizioak egiteko aukera ugari eskaintzen dizkigu.

Udalerrriaren erdigunean, gainera, eskualde osoari –Bilbo barne– zerbitzua ematen dion Derioko Hilerrria dago. Ez da, ordea, leku iluna, bertako hormetan, “Euskal Artearen Urrezko Garaiko” hainbat eskultura garrantzitsu ditugu argazkiak egiteko.



f 5.6 1/125 s. ISO 200
Objektiboa 14-54: 19 mm-ra
Udazkena.

LARRABETZU

GR-280 ibilbidean barrena



f 3.2 1/500 s. ISO 200
Objektiboa 14-54: 23 mm-ra
Udazkena.



HELBURUA
Bideko argazkiak

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa /Mendi-ibiltaritza

GPS KOORDENATUAK
43°15'57"N 2°47'25W

GD
43.265947
-2.7905300

GR-280 ibilbidearen sarrera da eta Kostaldeko Donejakue bidea ezinbesteko igarobidea, Larrabetzuk herrigune historiko garrantzitsua du, edertasun arkitektoniko handiko etxeekin. San Emeterio eta San Zeledonio zin egite elizan, atari eder batez inguratutik, gotorleku itxura bikainekoa, gotiko berantiarreko margolan eta freskoak aurkituko ditugu arduraz zainduta.

GR-280 ibilbidearen xendari jarraituz, bidea doan baso eta mendietara iritsiko gara, Bizkaiko mendi esanguratsuenei argazkiak egiteko talaia ezin hobe.



f 2.8 1/8000 s. ISO 200
Objektiboa 34 mm
Urte osoan



*Bidean zehar
aurkituko ditugun
baserrietako
askoren
arkitekturari
erreparatzea
gomendatzen dugu.*





Udazkeneko
denboraleetako
argia une aparta
izaten da baso
mardulak eta
kostalde malkartsua
harrapatzeko



f 5.6 1/20 s. ISO 200
Objektiboa 14-54: 27 mm-ra
Udazkena.

LEMOIZ

Itsasoaren eta lehorraren artean



HELBURUA

Landa-eremuko eta
kostako argazkiak

GARAIA

Urte osoan

NOLA IRITSI

Autoa/Bizkaibus

GPS

KOORDENATUAK

43°24'48"N

2°54'08"W

GD

43.4135998

-2.9022694

Lemoizek bitan banatzen du bere lurraldea: baso autoktonoak eta edertasun bereziko kostalde malkartsua. Itsas bazterrean Armintza dugu, arrantza-auzoa, labar artean kokaturiko portu ikusgarria. Gaur egun, oraindik, otarraina harrapatzeko tradizioari eusten diote bertan. Bertako talaiatik portuaren eta Armintzekalde kala/hondartzaren ikuspegi bikaina gozatuko dugu.

Argazkilaritza industrialia maite dutenentzat, han inguruan zentral nuklear zapuztua dago, inoiz abian jarri ez zena.

GR-280 hartzen badugu, Urizar eta Andraka auzoetara iritsiko gara ehun urtetik gorako haritzez beteriko xenda batetik.



f 2.4 1/1000 s. ISO 50
Objektiboa 14 mm
Negua.

SONDIKA *Artxandatik*



f 5.0 1/500 s. ISO 200
Objektiboa 50-200: 92 mm-ra
Udazkena.



HELBURUA
Paisaiaren argazkiak

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa/Bizkaibus

GPS KOORDENATUAK
43°16'43"N 2°55'16"W

GD
43.2786709
-2.9328209

Sondikak beste hainbat udalerrirekin partekatzen du Artxanda mendia-
ren gailurra. Mendi leun eta luze ho-
nek paisaia ikusgarrietan murgiltzeko
bidea emango digu. Hiritik oso gertu
egon arren, oraindik ere benetako
landa-eremuak baditu, Sondikako lu-
rrak, kasu.

Artxandako antzinako haize-
errota aparteko lekua da argazki-

ibilbideari ekin eta inguruko
bailaretako panoramikak bilatzeko.
Loiuko aireportua, Bilboko Abra
bere itsasadar sigi-sagatsuarekin,
Pagasarri eta Ganekogorta mendiak
edo Txorierriren aireko ikuspegia
alde batean, eta Bilbo hiria bestean.
Seguru aski ez da egongo Bizkaia
osoan hainbeste paisaia eta hain
askotarikoak biltzen dituen beste
lekurik.

ZAMUDIO

Iragana eta oraina

Zamudioko dorrea XV. elizaren ondoan. Bi eraikin horiek
mendeko sekulako dorretxea, nabarmendu egiten dira inguru
jatorriz Zamudiotarrena, eta gaur modernoan, eta ilunabarrean
egun udal-liburutegiaren egoitza. argiztatu egiten dituzte; horri esker,
Elexalde auzoan dago, parke txiki Ordu Urdinean xehetasun guztiekin
batek inguratuta eta parrokia- egin ditzakegu argazkiak.



HELBURUA
Arkitektura. Ordu Urdina

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa / Bizkaibus /Euskotren

GPS KOORDENATUAK
43°17'05"N
2°52'02"W

GD
43.2849865
-2.8672907



Ilunabarra eta Ordu Urdina une magikoak dira argazkiak esposizio
luzeekin egiteko. Tripode on bat izango da gure tresnarik onena.



f 22 8/0 s. ISO 200 Tripodea
Objektiboa 14-54:14mm-ra
Negua. Ordu Urdina.



MUNGIA

Historia eta natura

Mungia Uribe eskualdearen erdigunean bertan dago. Herrigunea monumentala da, baina ez dira urrun geratzen udal mugartean sakabanaturiko paisaiak ere. Xarma bereziko lekua da Zumetzagako San Migel basiliza. XII. mendearen amaieran eraiki zuten, Jata mendiaren ekialdeko magalean, ehun urtetik gorako harizti batez inguratuta. Inguruetatik Bakioko paisaiak ikus daitezke. Edozein urte sasoi izanda ere, gozamina da basiliza horretako kapitelen eta arkitekturaren argazkiak egitea; baina udazkenean, basoa okre kolorez jantzi denean eta zeruak ekaitz ukitua duenean, paraje horrek magikoa dirudi.



f 5.6 1/30 s. ISO 200
Objektiboa 12 mm
Udazkena.



Udazkena aparteko
sasoi a da zeru
dramatiko eta
mutur muturreko
argi-kontrakodun
konposizioak egiteko,
landarediaren okre-
kolorea ahaztu gabe.



f 8.0 1/2000 s. ISO 200
Objektiboa 14-54:13 mm-ra
Urte osoan



HELBURUA
Paisaia-argazkiak

GARAIA
Udazkena

NOLA IRITSI
Autoa/Bizkaibus

GD

43.398451
-2.8233555

GPS KOORDENATUAK
43°23'54" N
2°49'24" W

LAUKIZ

Lauaxetaren sorlekua



f 5.6 1/80 s. ISO 200
Objektiboa 14-54: 32 mm-ra
Udaberria.



HELBURUA
Landa-eremuko paisaia

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa/Bizkaibus

GPS KOORDENATUAK
43°21'05"N
2°55'22"W

GD
43.351445
-2.9228598

Laukiz eta Unbe mendia aparteko lekuak dira paisaiaren argazkilaritzan jarduteko. Udalerria bailara zabal batean dago, baso txiki eta baserriz inguratua. Unbe mendiaren magaletik, 300 metroko altueran, inguruaren ikuspegi aparta daukagu eta paisaia osoa menderatzen dugu, Laukiz ez ezik inguruko herriak ere, Loiu eta Erandio.



Unbe mendiaren altuera eta hedadura dela eta, hainbat txango aukera ditzakegu GR-280 ibilbidean.

Halakoetan, objektibo angeluzabal bat duen kamera izango dugu bidelagunik onena.

ARRIETA

Arkitektura kolorista

Arrietako baserriak apartak dira euskal arkitektura koloristaren argazkiak egiteko. Urte osoko ilunabarretan, egurraren, harriaren eta loreen koloreek berotasunez betetzen dituzte enkoadraketa guztiak.



Teleobjektibo bati esker fatxada tradizionalak apaintzen dituzten xehetasun arkitektoniko txikiei hautemango diegu.



HELBURUA
Euskal arkitektura

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa/Bizkaibus

GPS KOORDENATUAK
43°20'30" N
2° 46'08" W

GD
43.3416751
-2.7689657



f 5.6 1/400 s. ISO 200
Objektiboa 12 mm
Urrezko Ordua.





HELBURUA
Spotting fotografikoa

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa/Bizkaibus

GPS KOORDENATUAK
43°18'51"N 2° 56'22" W

GD
43.3142108
-2.9395679

LOIU Hegan

San Pedro eliza eta haren inguruko abadetxeek kontrastatu egiten dute Loiuko hurbileko aireportuko trafiko biziarekin. Ez da harritzekoa bi irudi antagoniko horiek argazki berean agertzea.

Aireontzien argazkiak (Spotting fotografikoa) egiteak gero eta zale gehiago erakartzen ditu argazkilarien artean.



Hegazkinei hegan daudela argazkiak egitea ez da lan erreza, arreta berezia jarri behar da obturadore-abiaduran, eta mugituta ez agertzeko bestekoa aukeratu behar da.



f 5.6 1/2000 s. ISO 200
Objektiboa 9 mm
Negua.

BERANGO Historia eta natura


Berango Uribe eskualdeko landa-eremuko paisaiaren eta kostako paisaiaren arteko muga dago. Berangotik gertu Kurtzioko Historiaurreko Aztarnategia ikus dezakegu; bai eta gertuagoko historiako beste elementu batzuk ere, hala nola Burdin Hesiaren hondarrak eta haren Oroimenaren museoa, eta Areneko bunkerra, Gerra Zibilekoak.



Historian oinarrituriko argazkiak egiteko irudiei balioa erantsiko dion informazioa behar da. Burdin Hesiaren Oroimenaren museora bisita egiteak horretan lagunduko digu, eta gure esperientziari interesa gehituko dio.



f 5.6 1/2500 s. ISO 200
Objektiboa 14-54: 40 mm-ra
Negua. Urrezko Ordua.



HELBURUA
Paisaia eta historia

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa/Bizkaibus/Metroa

GPS KOORDENATUAK
43°21'59" N
2°59'57" W

GD
43.3663917
-2.9993783



f 5.6 1/200 s. ISO 200
Objektiboa 14-54: 36 mm-ra
Negua.



Gamiz-Fika bi kilometroko tartearik bereizten dituen bi udalerririk osatzen dute; hala ere, bertako auzoak espazio zabala batean sakabanatuta daude. Elexaldetik (Fika) abiatuta, bailara osoa ikusteko besteko altuera hartuko dugu, Sollube eta Jata mendien siluetak edozein panoramikatik gailenduko zaizkigularik.



Eremu-sakonera oso handiko paisaietan komeni da atmosfera oso gardena den uneak aukeratzea; eguneko lehenak edo ekaitzaren ostekoak, kasu.



HELBURUA
Paisaia-argazkiak

GARAIA
Urte osoan

NOLA IRITSI
Autoa/Bizkaibus

GPS KOORDENATUAK
43°18'35" N 2°48'35" W

GD
43.3064857
-2.8098724

GAMIZ-FIKA

Mendien artean



Uribe



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Departamento de Industria,
Energía y Medio Ambiente
Departamento de Industria,
Energía y Medio Ambiente

Bizkaia
Bizkaia
Basque Country